

Alan Kingen hilberri txostena (1954-2019)

AZKARATE, Miren

Euskaltzain osoa

Euskarak, zorionez, ia beti izan ditu atzerriko adituak euskarari ekarpen handiak egin dizkietenak. Oraintsukoak baino ez aipatzearren, guztiok ditugu gogoan Larry Trask, Rudolf de Rijk, Bernhard Hurch eta, horien artean, nola ez, Alan Roy King. Egia esan, kostatzen egiten zaigu ezagutu ditugunoi Alan King edo Rudolf de Rijk ‘atzeritartzat’ hartzea. Bereziki, Alan Kingen kasuan, gure artean eman zuen-eta bere bizitzaren zatirik handiena. Gure artean, gurekin batera gramatika-lanetan. Gutako bat zen, beste euskaldun bat gehiago. Ingalaterran jaio zen 1954ko urriaren 24an, baina bere hitzak baino hoberik ez dugu aurkituko Alan Roy King nor izan den jakiteko:

Ingalaterrako ipar-mendebaldean jaioa naiz, kostako herri batean, Lancashire izeneko kondaduan. Nire gurasoak Londresen jaio ziren eta aiton-amonak, berriz, Ekialdeko Europako etorkin juduak ziren. Hamahiru urte bete arte Ingalaterran hazi nintzen eta gero Kalifornian, eta ondoren Europara itzuli nintzen. Hogeita bost urte nituelarik Euskal Herrira etorri nintzen bizitzera, eta geroztik bertan bizi izan naiz, Gipuzkoan, nahiz eta aldi batzuk kanpoan igaro, hala nola Ingalaterran (berriz), Katalunian, Galesen eta El Salvadorren (Erdi Amerikan alegia). Ama eta anaia Hawaiiin ditut eta han ere pasatzen ditut alditxoak noizbehinka.

Bizitzako joan-etorriez gain, zaletasunen eta kontu gogokoenen berri ere utzi zizun Alanek (bizirik zegoela zuen webgunean): «Hizkuntzak ditut zaletasun nagusia. (...). Hizkuntzei lotutako hainbat arlo interesatzen zaizkit, hala nola hizkuntzalaritza (nola ‘funtzionatzen’ duten aztertzea, alegia), gramatika (haien deskribapena jorratzea) eta hizkuntzalaritza aplikatua delakoa (hizkuntzak nola irakats). (...). Modu berezian atentzioa deitzen didate euskara bezalako hizkuntza ‘txiki’ edo minorizatu direlakoek, eta ondorioz, hizkuntzen berreskurapenaren arloak baita ere».

Horregatik hasi zen euskaraz ikasten Euskal Herrira etorri bezain laster. Gra-

matiketarako zaletasunak lagundu egin zion batetik euskararen arau eta egiturak bereganatzen eta baliabideak eman zizkion, bestetik, egitura horiek hizkuntzalaritzaren begietatik aztertzeko. Jakin-min eta prestakuntza horrek ekarri zuen Alan Gramatika batzordera eta *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* liburuki sortan parte hartzera. Txostengileen artean ikusiko dugu Alan Kingen izena *EGLU I, II, III, IV* eta *V* liburukietan. Bestelako bideak ere hartu zituen 2000. urtetik aurrera. Baina beti jarraitu zuen Gramatika batzordeari atxikia. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 2003ko urtarrilaren 31n.

Gramatika batzordean eginiko lanaz gain, *The Basque Language: A Practical Introduction* argitaratu zuen Renoko Unibertsitatean 1994an eta handik bi urtera, *Basque Grammar, Colloquial Basque* Begotxu Olaizolarekin batera, hizkuntzalaritzaren munduan prestigio handikoa den Routledge argitaletxean.

Baina, berak aitortu bezala, hizkuntza gutxituak, oro har, ziren Alan Kingen jakin-mineko. Horregatik 2002 eta 2005en arteko Salvadorreko egonaldian *nawat* (adinean aurrera doazen hiztun gutxi batzuk baino ez dira geratzen) eta *lenca* hizkuntzetara ere hurbildu zen eta 2004an *Gramática elemental del náhuat* eta 2011n *Timumachtikan! Curso de lengua náhuat para principiantes Adultos*¹ argitaratu zituen.

Eta Alan Kingek landutako hirugarren arloa, hizkuntzen berreskurapen eta biziberritzearena. Kezka eta lan horren emaitza dira "Hizkuntzak biziberritzeko paradigmak" lana (azkenetakoa, azkena ez bada), 2018an Oxfordek desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen gainean argitaraturiko eskulibururako² idatzia. Edo "El náhuat y su recuperación" artikulua.

Izan ere, hizkuntzekiko miwesmena zen Alanen ezaugarri nabarmenetako bat. Eta miwesmenak zekarren ondoren konpromisoa. Alan Roy Kingen konpromiso hori, argi ikusten da hil aurretikoan *Zarauzko Hitzan* argitaratzeko egin zioten elkarrizketan. Elkarrizketa horretan argi geratzen da zer zen hizkuntza Alanentzat. Argi zuen hizkuntza batek kultura islatzen duela: "Funtsean, kultura pertsonen arteko harremanetan ageri da, eta hori hizkuntzaren bidez adierazten da" esan zuen elkarrizketa horretan. Areago, "Hizkuntza gizakiaren funtsezko dimentsio bat da. Hizkuntzak egin egiten gaitu, eta denok hizkuntza bera izango bagenu, aniztasuna galduko genuke. Zenbat herrik galduko lukete beren nortasuna? Hondamendi bat".

1 King, Alan (2011): *Timumachtikan !: Curso de lengua náhuat para principiantes Adultos* . El Salvador: Izalco. Iniciativa Para La Recuperación del Idioma náhuat.

2 King, Alan (2018): "Language Recovery Paradigms". Kenneth L. Rehg and Lyle Campbell *The Oxford Handbook of Endangered Languages*. New York: Oxford University Press, 531-552.

Hizkuntzei buruzko ikusmolde hori izanik, erraz ulertzen da zergatik ikusten zuen bere burua mediku moduan, gaixorik dauden hizkuntzei etorkizuna bermatzeko ahaleginean, eta ez arkeologo moduan. Hizkuntzak bizirik nahi zituen, bakoitza bere gizartearen adierazle eta komunikazio-tresna. Arkeologo ala mediku? galdetu zion kazetariak: “Arkeologoaren analogia egokia da –erantzun zion Alaneke–; hizkuntzalari batzuek lehentasuna hizkuntza bati buruz ahal dugun guztia ikasteari ematen diote, hizkuntza hori hiltzean, erregistratua egon dadin. Baina horrek ez dio irtenbide bat eskaintzen hizkuntza minoritario baten hitzun bati; horretarako, medikuak behar dira”.

Izan ere, hizkuntza bat hiltzean mundu bat hiltzen dela esan zuen, eta ondorioz, denok ateratzen garela galtzaile. Hizkuntza bat galtzea ia herri bat galtzea da. “Ingalaterra zer izango litzateke ingelesik gabe?” galdetu zion ez dakit ziur bere buruari ala kazetariari. Eta jarraitu zuen: “Urrutiko hizkuntza bat galtzeak nola eragingo die besteei? Zuri agian ez zaizu axola, baina hango hitzunei bai. Haien nortasuna mantentzea eskubide bat da, eta ez da herrialde handi baten eskubidea baino gutxiago. Giza eskubideez ari gara, eta tamainak ez du garrantzirik nortasunaren defentsan”.

Ikuskera horrek eraman zuen El Salvadorren emandako urteetan (2002-2005) *nahuatl* hizkuntzarekin ere mediku-lanak egitera. Hilzorian dagoen hizkuntza hau ikasi, oinarriko gramatika idatzi eta baita *nahuatl* ikasteko metodo edo ikastaro bat ere. Alani horixe interesatzen zitzaiolako: hizkuntzek nola funtzionatzen duten aztertzea, gramatikak (hizkuntzen deskribapena jorratzea) eta hizkuntzak nola irakatsi lantzea.

Azken urteetan, berriro ere Euskal Herrira itzulirik, sarri ikusi genuen Gramatika batzordeko bileretan, azken urteetan ondu dugun *Gramatikaren* prestalanetan ari ginela. Kontuan hartzekoak ziren bere ekarpenak, ohi bezala. Zoritxarrez, ez zuen aukerarik izan *Gramatika* amaitua ikusteko.

Baina hizkuntza gutxituak, galtzeko arriskuan daudenak landu dituen ikerlariak gain, “bestelako” interesak ere bazituen gizona zen Alan King. Esaterako, Bibliako hebreera, eta neurri batean baita antzinako hizkuntza semitikoak ere. Sumertar hizkuntzari buruzko bideo bat YouTuben aurkitu ondoren, bideoaren egileei idatzi zien mezu luzean ikus dezakegu hizkuntza gutxituen mediku-lanak egiteaz gainera, zerk erakartzen zuen Alan:

Hizkuntzek nola funtzionatzen duten, nola erabiltzen diren besteei azaltzeak erakartzen nau gehien. Adibidez, Bibliako Hebreera hizkuntza idatzi moduan ezagutu dugu, baina aspaldiko garai batean ahozko hizkuntza gisa nolakoa izan zitekeen imajinatzeak erakartzen nau, gizarteko bateko kideen arteko ahozko komunikaziorako tresna gisa. (...) Bibliako Hebreerak liluratu nau urtetan eta urtetan eta, bereziki, Genesiak, Hasierak, nire liburu gogokoenak. (...) Genesia (eta Genesiari buruzkoak) irakurtzea izan da luzaroan denbora-pasa moduko bat.

Denbora-pasa baino zerbait gehiago ere bai, Testamentu Berria eta Hasiera itzuli zituelako nahuatlera. Pentsatzen dut atsegin handiz irakurriko zituela Alanek Babelgo dorreari buruzkoak, nik, hebreeraz ezin irakurri eta euskaraz irakurri ditudanak: “Jaitsi zen Jauna gizasemeak eraikitzen ari ziren hiria eta dorrea ikustera, eta esan zuen: `Hara guztiak herri bat bera dira, hizkuntza bat berekoak. Hau beren lehenengo lana badute, ez zaie aurrerantzean egin nahiko duten ezer ezinezko gertatuko. Jaitsi eta nahas diezaiegun, bada, hizkuntza, elkar uler ez dezaten`. Horrela, Jaunak handik bota eta mundu zabalean sakabanatu zituen (...) Horregatik Babel-hau da, `Nahasketa´- eman zioten izena, han nahasi baitzuen Jaunak mundu osoko hizkuntza eta handik sakabanatu baitzituen mundu zabalera”. Hor lortu zuen Alanek gozamenerako baliabidea.

Mezu horretan berriro ere aitortzen du gramatikak irakurtzea zela beretzat gogokoena, gozokiak jatea baino gogokoago. Horregatik erabaki zuen azken hilabeteetan ere gogokoen zuen horri eustea, telebista ikusten orduak ematea baino. Eta horrela aurkitu zuen sumerierari buruzko lana. Sumerieraz gauza handirik jakiteko aukerarik izan ez zuenez (besteak beste Interneten eskura zitekeen materialik ere ez zegoelako), bideo hori aurkitzea, izkinan gozoki denda berri bat ireki dutela jakitearen pareko izan omen zen. Zer egin? Zalantzarik gabe, askoz erakargarriago zitzaion aurkitutakoa arretaz aztertu, eta beste hainbatetan egin bezala, hizkuntza hori ikasteko irakasgaiak lantzea, *Colombo* ikustea baino. Horixe zen mezu luze hark zeraman eranskina: sumeriera erraza (*simple sumerian*), hizkuntza hori ikasteko lehen lau irakasgaien zirriborroa. Zoritxarrez, ez zuen aurrera segitzerik izan. 2019ko otsailaren 20an utzi gintuen.

Patxi Goenagak idatzi bezala, “euskaldun hizkuntzalari jakintsu, zorrotz, zuzen eta maitagarri batek” utzi gintuen egun hartan. San Salvadorreko Kultura Idazkaritzak beste hau idatzi zuen: “La Secretaria de Cultura de San Salvador lamenta el sensible fallecimiento de Alan Roy King, lingüista británico que colaboró en el

proceso de recuperación del náhuat y de la visibilización de sus hablantes. *Temiki tutaketzalis nian ne takamet kipalewiat. Padiush senpa Alan Roy King* (No muere nuestra lengua ni las personas que la ayudan. Gracias siempre Alan Roy King)”.

Alan Kingen oroimenezko lerro hauek berriro ere bere hitzekin amaitu nahi ditut: «urte guzti hauetan zehar euskararen berreskurapen prozesuan nolabait parte hartzen ari izan naizela esan daiteke (eta harro esaten dut!). Baina egia izan arren era apal eta xume batean euskarari laguntzen ahalegindu naizela neure bizitzan, ez nuke gutxiago azpimarratuko euskalgile eta euskaldunekin izan ditudan harreman luzeak neuri opatu dizkidan ikasgai oparoen jasotzaile izan naizela ni». Gu ere, Alan, zure ikasgai oparoen jasotzaile izan gara, eta, batez ere, zure adiskidetasunaren hartzaile.

Patxi Goenagari “lapurtuko” dizkiot azken hitzak:

Mila esker, Alan, azken berrogei urte hauetan eman dizkiguan irakaspen aberatsengatik. Gramatika batzordean jende askok gauza bera esango dik: hi bai, mutila hi! Hire jakituria handia argiro eta apaltasunez eskaini diguk. Eta gure euskara heurea ere bazela frogatzeko gai izan haiz, egintzekin frogatu ere: lan bikaina utzi diguk, idatziz eta hitzez. Hik irakatsiaren erdia geureganatuko bagenu, ez huke gutxi izango. Euskara ez zagok salbu. Egia, baina hi bezalako euskaldunak munduan bizi direino, euskara biziko duk. Hire hitzak hor segitzen dik oraingo eta geroko euskaldunen itsasargi gisa.